

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.

Foru dekretu honen xedea da arautzea tokiko sektore publikoko barne kontroleko foru eredu bat, tokiko autonomiaren printzipioa errespetatuz, arriskuak eta eskura dauden bitartekoak kontuan hartzen dituen kontrol eraginkorreko gutxieneko maila bat finkatzen duena.

Foru dekretu honen bidez, garatu egiten da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren IV. titulua (Kontrol kontu-hartzailea), betiere haren hirugarren xedapen gehigarrian jasotakoari jarraituz.

Foru dekretu honen xedea ez da arautzea ordenamendu juridikoan organo kontu-hartzaileei eman zaizkien eta erregulazio zehatz bat duten beste eginkizunen betetze ariketa, hala nola kontratazio mahaietan parte hartzea edo korporazioko kideek eskatutako kontsultatza hartzen diren txostenak idaztea.

Foru dekretu honek 5 titulu ditu.

I. tituluan, arautu egiten dira toki entitateetako barne kontrolaren ariketaren xedapen komunak. Kapituluak honela banatuta daude:

a) I. kapitulua foru dekretuaren hedadura objektiboari eta subjektiboari buruzkoa da, eta bertan zehaztuta daude entitatearen antolamenduzko egituraren edo ezaugarrien arabera egin beharreko kontrol motak.

Ikuspuntu tekniko batetik begiratuta, barne kontroleko bi modalitate daude: eginkizun kontu-hartzailea eta kontrol finantzarioa (biek eraginkortasun kontrola barnean hartzen dute). Era berean, kontrol finantzarioa egiteko bi modalitate daude: kontrol iraunkorra eta auditoretza publikoa.

b) II. kapitulua organo kontu-hartzailearen betebeharrei eta ahalmenei buruzkoa da.

II. tituluan eginkizun kontu-hartzailearen ariketa garatzen da, aurrekontu fase guztiak barnean hartuta. Eginkizun kontu-hartzailearen helburu nagusia izango da aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartzea egitea toki entitateak eta horren organismo autonomoek eta, hala badagokio, partzuergoek ekonomia, finantza eta ondare arloko eraginarekin egiten dituzten egintzen gainean, betiere egintza horiek onartu aurretik.

Eginkizun kontu-hartzailea aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze arruntaren bidez zein aurretiazko fiskalizazio mugatuko araubide baten bidez bete ahal izango da. Azken horren barruan, osoko bilkurak oinarritzko baldintzen araubide bat zehazteko ahalmena du.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.4 ar-

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Decreto Foral 32/2018, de 27 de diciembre, por el que se regula el régimen jurídico del control interno en las entidades del Sector Público Local de Gipuzkoa y se modifica el Decreto Foral 86/2015, de 15 de diciembre, por el que se aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales de Gipuzkoa.

El presente decreto foral tiene por finalidad la regulación de un modelo foral de control interno en el sector público local que, respetando el principio de autonomía local, fije unos estándares mínimos de control eficaz que tengan en cuenta los riesgos y los medios disponibles para llevarlo a cabo.

Mediante el presente decreto foral se desarrolla por tanto el Título IV, referido al control interventor, de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, de conformidad con lo previsto en su disposición adicional tercera.

No es objeto de este decreto foral la regulación del ejercicio de aquellas otras funciones asignadas a los órganos interventores en el ordenamiento jurídico y que cuentan con una regulación concreta, tales como la asistencia a las mesas de contratación o la emisión de informes que tengan la consideración de consultas solicitadas por los miembros de la corporación.

Este decreto contiene 5 títulos.

El título I regula las disposiciones comunes del ejercicio del control interno en las entidades locales con la siguiente división en capítulos:

a) El capítulo I se refiere al alcance objetivo y subjetivo del decreto foral, concretando los tipos de controles a realizar en función de la estructura organizativa o características de la entidad.

Desde el punto de vista técnico, el control interno se estructura en dos modalidades, función interventora y control financiero, incluyéndose en ambos, el control de eficacia. Asimismo, el control financiero se configura en dos regímenes de ejercicio diferenciados: el control permanente y la auditoría pública.

b) El capítulo II desarrolla los deberes y facultades del órgano interventor.

El título II desarrolla el ejercicio de la función interventora comprendiendo todas y cada una de las fases presupuestarias. La función interventora tendrá como objetivo principal la fiscalización e intervención previa de los actos de susceptible repercusión económica, financiera y patrimonial de la entidad local y de sus organismos autónomos, así como de los consorcios, en su caso, antes de que sean aprobados dichos actos.

El desarrollo de la función interventora podrá realizarse mediante la fiscalización e intervención previa ordinaria o bien mediante un régimen de fiscalización limitada previa. Dentro de esta última el Pleno está facultado para determinar un régimen de requisitos básicos.

En desarrollo de lo regulado en el artículo 70.4 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Enti-

tikuluko erregulazioa garatze aldera, foru dekretuan jasotzen denez, toki entitateko lehendakariak aukera izango du Foru Aldundiko kontrol organoari aurkeztutako desadostasunei buruzko txostena eskatzeko.

Azkenik, II. tituluaren eginkizun kontu-hartzailearen beste bi alderdi garrantzitsu garatzen dira: batetik, eginkizun kontu-hartzailearen ariketa inbertsioaren egiaztapen materialaren kontu-hartze fasean (testuan, jarduketa horiek garatzeko gutxieneko baldintza batzuk jartzen dira); eta, bestetik, eginkizun kontu-hartzailea betetzean zerbait egin gabe geldituz gero jarraitu beharreko prozedura.

III. titulua kontrol finantzarioko modalitateari buruzkoa da, eta lau kapitulutan banatuta dago:

a) Lehen kapituluan, kontrol finantzarioaren alderdi orokorrak jasotzen dira.

Oinarrizko baldintza gisa ezartzen da organo kontu-hartzaileak kontrol finantzarioko urteko plan bat prestatzea eta gauzatzea, eta hark toki entitateko osoko bilkurari planaren eta haren aldaketan edo aldakuntzen berri ematea.

b) Bigarren kapitulua kontrol finantzarioaren kontrol iraunkorreko modalitateari buruzkoa da, eta helburutzat hartzen du iraunkorki egiaztatzea tokiko sektore publikoaren jardura ekonomiko-finantzarioa ordenamendu juridikoarekin eta kudeaketa finantzario onaren printzipio nagusiekin bat datorrela.

c) Hirugarren kapitulua kontrol finantzarioaren auditoretza publikoko modalitateari buruzkoa da, eta arautu egiten du tokiko sektore publikoaren jardura ekonomiko-finantzarioaren gainean ondoren eta sistematikoki egin beharreko ziurtapena, berrikuspen prozedura selektiboak erabiltzea egin beharrekoa. Modalitate horren barruan, urteko kontuen auditoretzak, betetze auditoretzak eta auditoretza operatiboak sartzen dira.

d) Laugarren kapituluan, kontrolaren emaitzak islatu eta izapidetzeko oinarrizko irizpideak zehazten dira.

IV. tituluaren, berrikuntza garrantzitsu bat sartzen da toki entitateen barne kontroleko araubidean. Txostenean jasotako emaitzen arabera, toki entitateek ekintza plan bat formalizatu beharko dute, non zehaztuko diren txostenean jasotako ahuleziak, hutsuneak edo ez-betetzeak konpontzeko hartu beharreko neurriak.

V. tituluaren, kontrol sinplifikatuko araubide bat garatzen da, zeina aukeran aplikatu ahal izango duten jardura ekonomiko-finantzario txikiagoa duten eta, hasteko, kontrol orokorreko araubidera biltzeko baldintza okerretan egon daitezkeen toki entitateek.

Azkenik, foru dekretuak beste hauek ere barnean hartzen ditu: bost xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat, xedapen iragankor bat eta bi azken xedapen.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak hirugarren xedapen gehigarrian dioenez, Foru Aldundiari baimena ematen zaio foru arau horretan ezarritako xedapenak erregelamenduz garatzeko, betiere aurretik lurralde historikoan sendoen errotutako udal elkarteak txostena idatzita. Alde horretatik, Eudel Euskadiko Udalen Elkarteak aldeko txostena eman dio foru dekretu honen proiektuari.

Foru dekretu honek erantzuten die Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak jasotako erregulazio oneko printzipioei, eta, testua idatzeko, jarraitu zaio Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko zuzentzailearen 12ko 6/2005 Foru Arauaren 70. artikuluan jasotako prozedurari.

Finantza tutoretzako ahalmenak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eskudunei dagozkie, hala jasotzen baitu Gehigarriaren 48. artikulua apartatuan Euskadiko Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunari buruzko maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak.

dades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se recoge en el decreto foral la posibilidad que tiene la Presidencia de la entidad local de solicitar informe sobre discrepancias planteadas al órgano de control de la Diputación Foral.

Por último, en el título II se desarrollan otros dos aspectos relevantes de la función interventora. Por un lado, el ejercicio de la función interventora en la fase de intervención de la comprobación material de la inversión, reflejándose en el texto unos requisitos mínimos para el desarrollo de estas actuaciones, y, por otro lado, el procedimiento a seguir en caso de producirse alguna omisión de la función interventora.

El título III, referido a la modalidad del control financiero, se estructura en cuatro capítulos:

a) El primero de ellos, refleja los aspectos generales del control financiero.

Se introduce como requisito básico que el órgano interventor elabore y adopte un plan anual de control financiero, del que deberá informar al Pleno de la entidad local, así como de las modificaciones o alteraciones que se produzcan.

b) El segundo, referido al ejercicio del control financiero en la modalidad de control permanente, fija como objetivo comprobar, de forma continua, que la actividad económico-financiera realizada por el sector público local se ajusta al ordenamiento jurídico y a los principios generales de buena gestión financiera.

c) El tercero sobre el ejercicio del control financiero en la modalidad de auditorías públicas regula la verificación a realizar con posterioridad de forma sistemática, de la actividad económico-financiera del sector público local, mediante la aplicación de los procedimientos de revisión selectivos. Esta modalidad comprenderá las auditorías de cuentas anuales, de cumplimiento y operativas.

d) El cuarto concreta los criterios básicos para la plasmación y tramitación de los resultados del control efectuado.

El título IV introduce una importante novedad en el régimen de control interno en las entidades locales. Conforme a los resultados reflejados en el informe, las entidades locales deberán formalizar un plan de acción donde se determinen las medidas a adoptar para subsanar las debilidades, deficiencias o incumplimientos reflejados en dicho informe.

Se desarrolla en el título V del texto un régimen de control simplificado de aplicación potestativa para aquellas entidades locales que cuentan con una menor dimensión en su actividad económico-financiera y que podrían encontrarse, en principio, en peores condiciones para asumir el régimen de control general.

Por último, conforman el decreto foral cinco disposiciones adicionales, una disposición derogatoria, una disposición transitoria y dos disposiciones finales.

La Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en su disposición adicional tercera, establece que se autoriza a la Diputación Foral para desarrollar reglamentariamente los preceptos en ella contenidos, previo informe de la Asociación de Municipios de mayor implantación en el Territorio Histórico. En tal sentido, la Asociación de municipios Vascos-Euskadiko Udalen Elkarte (Eudel) ha informado favorablemente el proyecto del presente decreto foral.

El presente decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y para su elaboración se ha seguido el procedimiento establecido en el artículo 70 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

El artículo 48, apartado quinto del Anejo de la Ley 12/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, establece que las facultades de tutela financiera corresponderán a las instituciones competentes del País Vasco.

Bestetik, Foru Aldundiarena da bere lurraldeko udalerrien finantza tutoretza egiteko ahalmena, hala jasotzen baitu bigarren xedapen gehigarrian azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoe-tako Foru Erakundeen arteko harremani buruzkoak.

Ogasun eta Finantza Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko ekainaren 19ko 19/2016 Foru Dekretuari jarraituz, foru departamentu horrexek du aurrekontu, kontabilitate, finantza eta zerga alorrean toki entitateei aholku eta laguntza eman eta gai horien inguruan araugintzako proposamenak egiteko ahalmena.

Foru diputatuei dagokie beren departamentuaren berriazko gaietan Diputatuen Kontseiluari foru dekretuen proiektuen onarpena proposatzea, hala jasotzen baitu 40.1 c) artikuluan uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak.

Horri jarraituz, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordea ez-tzun ondoren, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran ez-tzabaidatu eta onartu ondoren, hau.

XEDATZEN DUT

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA. APLIKAZIO EREMUA ETA BARNE KONTROLAREN ARIKETAREN PRINTZIOAK

1. artikulua. Xedea eta araubide juridikoa.

1. Xedapen honen xedea da erregelamenduz garatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren IV. titulua (kontrol kontu-hartzailea), haren hirugarren xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera.

2. Tokiko sektore publikoa osatzen duten entitateek egiten dituzten barne kontroleko jarduerak bat etorriko dira 21/2013 Foru Arauan, foru dekretu honetan eta toki entitateek aurreko xedapenak garatze aldera onartutako arau erregulatzaileetan jasota dauden xedapenekin.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

1. 21/2003 Foru Arauaren IV. tituluaren aipatutako kontrola artikulua honen 2. artikuluan jasotako entitateen gainean egingo da, foru dekretu honek ezartzen duen hedadurarekin eta ondorioekin.

2. Foru dekretu hau ondoko entitateei aplikatuko zaie:

- a) Toki entitatea bera.
- b) Toki organismo autonomoak.
- c) Tokiko entitate publiko enpresarialak.
- d) Toki entitatearen menpeko merkataritza sozietateak.

e) Toki entitateari atxikitako zuzenbide publiko edo pribatuko beste entitate batzuk, betiere beren egintzak toki entitatearen erabakitzeko ahalmenari lotuta badaude.

Entitate bat atxikita dagoela ulertzen da kategoria horretarako Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean edo aurrekontu egonkortasunari buruzko araudian jarritako baldintzak betetzen dituenean.

Por su parte, la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de relaciones entre las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos forales de sus Territorios Históricos, establece en su disposición adicional 2.ª, que corresponde a la Diputación Foral el ejercicio de la facultad de tutela financiera sobre sus municipios.

El Decreto Foral 19/2016, de 19 de junio, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Hacienda y Finanzas atribuye a este Departamento Foral la competencia de asesorar y apoyar a las entidades locales en los ámbitos presupuestario, contable, financiero y tributario, así como realizar propuestas de desarrollo normativo en esas materias.

El artículo 40.1 c) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno, y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa determina que compete a los diputados forales y a las diputadas forales proponer al Consejo de Gobierno Foral para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su departamento.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, oída la Comisión Jurídica Asesora y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

CAPÍTULO I. DEL ÁMBITO DE APLICACIÓN Y LOS PRINCIPIOS DEL EJERCICIO DEL CONTROL INTERNO

Artículo 1. Objeto y régimen jurídico.

1. La presente disposición tiene por objeto el desarrollo reglamentario del título IV, referido al control interventor, de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, de conformidad con lo previsto en su disposición adicional tercera.

2. Las actuaciones de control interno que se lleven a cabo en las entidades que conforman el sector público local se ajustarán a los preceptos contenidos en la Norma Foral 21/2003, en el presente decreto foral y en las normas reguladoras aprobadas por las entidades locales en desarrollo de las anteriores disposiciones.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

1. El control al que se refiere el título IV de la Norma Foral 21/2003 será ejercido sobre las entidades relacionadas en el apartado 2 de este artículo, con la extensión y los efectos que se determinan en el presente decreto foral.

2. Este decreto foral será de aplicación a las siguientes entidades:

- a) La propia entidad local.
- b) Los organismos autónomos locales.
- c) Las entidades públicas empresariales locales.
- d) Las sociedades mercantiles dependientes de la entidad local.

e) Otras entidades de derecho público o privado adscritas siempre que sus actos estén sujetos al poder de decisión de la entidad local.

Una entidad se considera adscrita cuando cumpla con los requisitos establecidos para tal categoría en la Ley 40/2015, de régimen Jurídico del Sector Público, o en la normativa de estabilidad presupuestaria.

Entitate bat erabakitzeke ahalmenari lotuta dagoela ulertzen da toki entitateak gobernu organoetan botoen erditik gora dituenen.

3. Era berean, organo kontu-hartzaileak araudi aplikagarrian jasotako kontrola izango du entitate laguntzaileen gainean eta tokiko sektore publikoa osatzen duten subjektuek emandako subentzioen eta diru laguntzen onuradun diren pertsonen gainean ere.

4. Toki entitateak egiten duen kontrola urteko kontuen auditoretzaren bidez egingo da, hari atxikita egon arren haren erabakitzeke ahalmenari lotuta ez dauden partzuergoei dagokienez.

3. artikulua. Ariketa moduak.

1. Tokiko sektore publikoaren jardura ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratoritzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.

Partzuergo atxikiak toki entitatearen erabakitzeke ahalmenari lotuta daudenean, eginkizun kontu-hartzailea haiek atxikita dauden toki entitateko osoko bilkurak hala erabakitzen dituen kasuetan gauzatuko da.

3. Kontrol finantzarioaren xedea da ziurtatzea alderdi ekonomiko-finantzarioari dagokionez tokiko sektore publikoko zerbitzuen funtzionamendua. Izan ere, helburua da egiaztatzea haiei buruzko araudia eta jarraibideak betetzen dituztela eta, oro har, haien gestioa kudeaketa finantzario onaren printzipioekin bat datorrela, betiere begiratuta baliabide publikoen kudeaketa eraginkortasunak, efizientziak, ekonomiak, kalitateak eta gardentasunak nahiz aurrekontu egonkortasuneko eta finantza iraunkortasuneko printzipioek gidatuta daudela tokiko baliabide publikoen erabilpenari dagokionez.

4. Horrela definitutako kontrol finantzarioak bi modalitate ditu: kontrol iraunkorra eta auditoretza publikoa.

4. artikulua. Barne kontrolaren ariketaren printzipioak.

1. Barne kontrolerako eginkizunak betetzean, toki entitateko organo kontu-hartzaileak printzipio hauei jarraituko die: autonomia funtzionala, ariketa deskontzentratua, erantzukizun mugatua eta kontraesaneko prozedura.

2. Barne kontrola egitean, toki entitateko organo kontu-hartzailea autonomia osoz arituko da berak kontrolatzen dituen organo eta entitateei dagokienez. Horretarako, barne kontrola egiten duten funtzionarioek independentzia funtzionala izango dute kontrolpeko entitateetako titularrei dagokienez.

3. Organo kontu-hartzaileak kontrol eredu eraginkor bat izango du; horretarako, toki entitateak beharrezkoak eta nahikoak diren bitartekoak jarri beharko ditu. Tokiko sektore publikoaren barne kontrola zuzenean organo kontu-hartzaileak edo, bestela, hark eskuordetutako organoek egin ahal izango dute. Era berean, barne kontrola egiteko, toki entitateetik kanpo kontratatutako bitartekoen lankidetzaz baliatu ahal izango da, betiere organo kontu-hartzaileak gainbegiratuta eta zuzenduta, kontrol finantzarioa egiten denean.

4. Toki entitateko organo kontu-hartzaileak kontrolpeko kudeaketa organoei adieraziko die zeintzuk diren egiaztapenen emaitza nagusiak eta zeintzuk diren jarduketak gomendagarriak.

Se entiende que una entidad está sujeta al poder de decisión cuando la entidad local ostenta más de la mitad de los votos en los órganos de gobierno.

3. El órgano interventor ejercerá también el control establecido en la normativa aplicable sobre las entidades colaboradoras y personas beneficiarias de subvenciones y ayudas concedidas por los sujetos que integran el sector público local.

4. El control de la entidad local respecto a los consorcios adscritos cuyos actos no estén sujetos al poder de decisión de la entidad local se ejercerá mediante auditoría de las cuentas anuales.

Artículo 3. Formas de ejercicio.

1. El control interno de la actividad económico-financiera del sector público local se ejercerá por el órgano interventor mediante el ejercicio de la función interventora y el control financiero. En ambos se incluirá el control de eficacia y eficiencia referido en el artículo 68 de la Norma Foral 21/2003.

2. La función interventora tiene por objeto controlar los actos de la entidad local y de sus organismos autónomos, cualquiera que sea su calificación, que den lugar al reconocimiento de derechos o a la realización de gastos, así como los ingresos y pagos que de ellos se deriven, y la inversión o aplicación en general de sus fondos públicos, con el fin de asegurar que su gestión se ajuste a las disposiciones aplicables en cada caso.

En los consorcios adscritos sujetos al poder de decisión de la entidad local, la función interventora se realizará en aquellos casos en los que así se determine por el Pleno de la entidad local a la que estén adscritos.

3. El control financiero tiene por objeto verificar el funcionamiento de los servicios del sector público local en el aspecto económico financiero para comprobar el cumplimiento de la normativa y directrices que los rigen y, en general, que su gestión se ajusta a los principios de buena gestión financiera, comprobando que la gestión de los recursos públicos se encuentra orientada por la eficacia, la eficiencia, la economía, la calidad y la transparencia, y por los principios de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera en el uso de los recursos públicos locales.

4. El control financiero así definido comprende las modalidades de control permanente y la auditoría pública.

Artículo 4. Principios del ejercicio del control interno.

1. El órgano interventor de la entidad local, en el ejercicio de sus funciones de control interno, estará sometido a los principios de autonomía funcional, ejercicio desconcentrado, responsabilidad limitada y procedimiento contradictorio.

2. El órgano interventor de la entidad local ejercerá el control interno con plena autonomía respecto a los órganos y entidades a las que controla. A tales efectos, el personal funcionario que lo realice tendrá independencia funcional respecto de los titulares de las entidades controladas.

3. El órgano interventor dispondrá de un modelo de control eficaz y para ello la entidad local deberá habilitar los medios necesarios y suficientes. El ejercicio del control interno del sector público local podrá llevarse a cabo directamente por el órgano interventor o mediante órganos delegados. Asimismo, podrá servirse de la colaboración, bajo la supervisión y dirección del órgano interventor, de medios ajenos a la propia entidad local contratados al efecto cuando se refiera al ejercicio del control financiero.

4. El órgano interventor de la entidad local dará cuenta a los órganos de gestión controlados de los resultados más relevantes de las comprobaciones efectuadas y recomendará las actuaciones que resulten aconsejables.

5. Organo kontu-hartzailea erantzulea izango da, bakarrik baldin eta dolo, erruduntasun edo zabarkeria larriaren ondorioz ez badu erantzukizunetik libre utzi bere burua Toki Ogasunari kalte-galerak eragiten dizkieten egintza edo xedapenen bidegabetasunari edo legezkontrakotasunari dagokionez, eta haiek eratu, eman eta ikuskatzeko prozesuan parte hartu duenean.

II. KAPITULUA KONTROL ORGANOAREN BETEBEHARRAK ETA AHALMENAK

5. artikulua. Kontrol organoaren betebeharrak.

1. Eginkizun kontu-hartzailea bete edo kontrol finantzarioa egiten duten funtzionarioek isilpean gorde beharko dituzte beren eginkizunak betetzean ezagutzen dituzten gaiak.

Barne kontrola egitean lortutako datu, txosten edo aurrekariak haren helburuetarako bakarrik erabili ahal izango dira, eta, hala badagokio, arau hauste administratiboa edo kontabilitate edo zigor erantzukizuna ekar dezaketen gertakarien salaketarako ere bai.

2. Organo kontu-hartzaileak kontrol txostenetarako sarbidea eman beharko du, legez bidezkoa denean. Legez jasota ez badago, kontrolpeko jarduera ekonomiko-finantzarioa zuzenean kudeatzen duen pertsonari eskatu beharko zaio.

6. artikulua. Kontrol organoaren ahalmenak.

1. Organo kontu-hartzaileak honako hauek erabili ahal izango ditu, kontrol eginkizunak betetzean, betiere ondorengo paragrafoetan jasotakoari jarraituz: lankidetzak betebeharra, aholkua eskatzeko ahalmena, defentsa juridikoa eta kudeaketako sistema informatikoak berrikusteko ahalmena.

2. Toki entitateetan edo haien menpe edo haiei atxikita dauden entitateetan eginkizun publikoak betetzen dituzten edo lan egiten duten pertsonak beharrezko lankidetzak eta laguntza eman beharko diote kontrola egiteaz arduratzen den organoari.

3. Pertsona natural edo juridiko guztiak, publikoak izan edo pribatuak izan, behartuta egongo dira, aurretik organo kontu-hartzaileak hala eskatuta, mota guztietako datu, txosten edo aurrekariak ematera, haiek zuzenean eratoritzen direnean berak egiten dituen kontrol jardueretarako garrantzia duten beste pertsona batzuekin dituzten harreman ekonomiko, profesional edo finantzarioetatik.

4. Egintza, agiri edo espedientearen izaera dela-eta beharrezkoa denean, betiere barne kontrolleko eginkizunak betetze aldera, toki entitateko organo kontu-hartzaileak beharrezkotzat hartzen dituen aholku juridikoak eta txosten teknikoak eskatu ahal izango dizkie, zuzenean, toki entitateko organoei, bai eta barne kontrolleko eginkizunak betetzeko beharrezkoak duten aurrekariak eta agiriak ere, haien euskarria zein den aintzat hartu gabe.

Era berean, organo kontu-hartzaileek aholkularitza eta txostena eskatu ahal izango dizkie, toki entitateko lehendakariaren bidez, Foru Aldundiko tokiko laguntza zerbitzuei eta organo eskudunei.

5. Toki entitateek bermatu eta hartu beharko dituzte organo kontu-hartzaileetako langileak juridikoki defendatu eta babesteko beharrezkoak diren neurriak, langile horiek barne kontrolleko jarduketetan parte hartzearen ondorioz edozein jurisdikzio ordenaren aurrean bideratzen diren prozeduretan.

6. Kontrol finantzarioan aritzen diren funtzionarioek kudeaketako sistema informatikoak berrikusi ahal izango dituzte, sistema horiek beren kontrol eginkizunak betetzeko beharrezkoak direnean.

5. El órgano interventor sólo es responsable en los casos en que con dolo, culpa o negligencia grave no haya salvado su responsabilidad acerca de la improcedencia o ilegalidad de aquellos actos o disposiciones que causen daños y perjuicios a la hacienda local y en cuyo proceso de formación, emisión y supervisión haya participado previamente.

CAPÍTULO II. DE LOS DEBERES Y FACULTADES DEL ÓRGANO DE CONTROL

Artículo 5. De los deberes del órgano de control.

1. El personal funcionario que ejerza la función interventora o realice el control financiero, deberá guardar el debido sigilo con relación a los asuntos que conozca en el desempeño de sus funciones.

Los datos, informes o antecedentes obtenidos en el ejercicio del control interno sólo podrán utilizarse para los fines asignados al mismo y, en su caso, para formular la correspondiente denuncia de hechos que puedan ser constitutivos de infracción administrativa, responsabilidad contable o penal.

2. El órgano interventor deberá facilitar el acceso a los informes de control en aquellos casos en los que legalmente proceda. En defecto de previsión legal, la solicitud de los mismos deberá dirigirse a la persona que gestione directamente la actividad económico-financiera controlada.

Artículo 6. De las facultades del órgano de control.

1. El órgano interventor podrá hacer uso en el ejercicio de sus funciones de control del deber de colaboración, de la facultad de solicitar asesoramiento, de la defensa jurídica y de la facultad de revisión de los sistemas informáticos de gestión de acuerdo con lo previsto en los párrafos siguientes.

2. Las personas que ejerzan funciones públicas o desarrollen su trabajo en las entidades locales o en sus entidades dependientes o adscritas deberán prestar la debida colaboración y apoyo al órgano encargado de la realización del control.

3. Toda persona natural o jurídica, pública o privada, estará obligada a proporcionar, previo requerimiento del órgano interventor, toda clase de datos, informes o antecedentes deducidos directamente de sus relaciones económicas, profesionales o financieras con otras personas con trascendencia para las actuaciones de control que desarrolle.

4. Cuando la naturaleza del acto, documento o expediente lo requiera el órgano interventor de la entidad local, en el ejercicio de sus funciones de control interno, podrá recabar directamente de los distintos órganos de la entidad local los asesoramientos jurídicos y los informes técnicos que considere necesarios, así como los antecedentes y documentos precisos para el ejercicio de sus funciones de control interno, con independencia del medio que los soporte.

Asimismo, los órganos interventores podrán recabar, a través de la Presidencia de la entidad local, el asesoramiento e informe de los servicios de asistencia local y de los órganos competentes de la Diputación Foral.

5. Las entidades locales deberán garantizar y adoptar las medidas necesarias para la defensa jurídica y protección del personal de los órganos interventores en los procedimientos que se sigan ante cualquier orden jurisdiccional como consecuencia de su participación en actuaciones de control interno.

6. El personal funcionario actuante en el control financiero podrá revisar los sistemas informáticos de gestión que sean precisos para llevar a cabo sus funciones de control.

II. TITULUA

EGINKIZUN KONTU-HARTZAILEA

I. KAPITULUA. EGINKIZUN KONTU-HARTZAILEAREN ARIKETA

7. artikulua. Eginkizun kontu-hartzailearen faseak.

1. Fase hauek izango ditu eginkizun kontu-hartzailearen ariketak:

a) Aurretik fiskalizatzea eduki ekonomikoko eskubideak onartu, gastuak baimendu edo onartu, gastuak xedatu edo konprometitu, bidegabeko sarreren itzulketa erabaki eta agindu eta funts eta baloreen mugimenduak erabakitzen dituzten egintzak.

b) Kontu-hartzea egitea obligazioen onarpenaren eta inbertsioaren egiaztapen materialaren gainean eta, oro har, funts publikoen aplikazioaren gainean.

c) Kontu-hartze formala egitea ordainketa aginduaren gainean.

d) Kontu-hartze materiala egitea ordainketaren gainean.

2. Eginkizun kontu-hartzailea modalitate formal eta materialean beteko da. Modalitate formalean, erabakia hartzeko beharrezkoak diren legezko baldintzak betetzen direla ziurtatuko da, derrigorrez espedientean sartu behar diren agiri guztiak aztertuta. Modalitate materialean, aldiz, funts publikoak benetan eta efektiboki aplikatzen direla egiaztatuko da.

8. artikulua. Eginkizun kontu-hartzailearen edukia.

1. Eginkizun kontu-hartzailea aurretiazko fiskalizazio moduan zein aurretiazko kontu-hartze moduan beteko da, betiere ondorengo apartatueta jasotakoari jarraituz. Eginkizun kontu-hartzailea betetzean, ez zaio begiratu kontu-hartzea egin zaien jarduketek egokitasunari edo komenigarritasunari.

2. Aurretiazko fiskalizaziotzat hartzen da organo kontu-hartzaileak eduki ekonomikoko eskubide edo betebeharrak edo funts eta baloreen mugimendua sor dezaketen egintza, agiri edo espediente guztiak aztertze duen ahalmena, betiere legez ezarritako prozedurari jarraituz haiek kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datozela ziurtatze aldera.

3. Gastuaren likidazioaren edo obligazioen onarpenaren aurretiazko kontu-hartzetat hartzen da organo kontu-hartzaileak obligazioak legearekin edo agintari eskudunek izenpetutako negozio juridikoekin bat datozela eta hartzekodunak bere prestazioa bete edo, hala badagokio, bermatu duela egiaztatze duen ahalmena, betiere dena delako ebazpena eman aurretik gauzatu beharrekoa dena. Inbertsioaren egiaztapen materialaren kontu-hartzea bat etorriko da foru dekretu honetako 20. artikuluan jasotakoarekin. Frogatu beharreko ordainketetan eta kutxa finkoko aurrerakinetan, kontu frogagarrien kontu-hartzea foru dekretu honetako 27. artikuluan jasotakoaren arabera egingo da.

4. Ordainketaren aginduaren kontu-hartze formaltzat hartzen da organo kontu-hartzaileari ordainketa aginduak behar bezala eman direla ziurtatzeko esleitzen zaion ahalmena.

5. Ordainketaren kontu-hartze materialtzat hartzen da organo eskudunak ordainketa hori xedatu duela eta jasotzailearen alde eta behar adinako zenbatekoan egin duela ziurtatzeko organo kontu-hartzaileari esleitzen zaion ahalmena.

TÍTULO II

DE LA FUNCIÓN INTERVENTORA

CAPÍTULO I. DEL EJERCICIO DE LA FUNCIÓN INTERVENTORA

Artículo 7. De las distintas fases de la función interventora.

1. El ejercicio de la función interventora comprenderá las siguientes fases:

a) La fiscalización previa de los actos que reconozcan derechos de contenido económico, autoricen o aprueben gastos, dispongan o comprometan gastos, acuerden y ordenen devoluciones de ingresos indebidos y acuerden movimientos de fondos y valores.

b) La intervención del reconocimiento de las obligaciones e intervención de la comprobación material de la inversión y, en general, de la aplicación de los fondos públicos.

c) La intervención formal de la ordenación del pago.

d) La intervención material del pago.

2. La función interventora se ejercerá en sus modalidades formal y material. La modalidad formal consistirá en la verificación del cumplimiento de los requisitos legales necesarios para la adopción del acuerdo mediante el examen de todos los documentos que preceptivamente deban estar incorporados al expediente. En la modalidad material se comprobará la real y efectiva aplicación de los fondos públicos.

Artículo 8. Del contenido de la función interventora.

1. La función interventora se ejercerá bien como fiscalización previa bien como intervención previa en los términos señalados en los apartados siguientes. El ejercicio de la función interventora no atenderá a cuestiones de oportunidad o conveniencia de las actuaciones intervenidas.

2. Se entiende por fiscalización previa la facultad que compete al órgano interventor de examinar, antes de que se dicte la correspondiente resolución, todo acto, documento o expediente susceptible de producir derechos u obligaciones de contenido económico o movimiento de fondos y valores, con el fin de asegurar, según el procedimiento legalmente establecido, su conformidad con las disposiciones aplicables en cada caso.

3. La intervención previa de la liquidación del gasto o reconocimiento de obligaciones es la facultad del órgano interventor para comprobar, antes de que se dicte la correspondiente resolución, que las obligaciones se ajustan a la ley o a los negocios jurídicos suscritos por las autoridades competentes y que la persona o entidad acreedora ha cumplido o garantizado, en su caso, su correlativa prestación. La intervención de la comprobación material de la inversión se ajustará a lo establecido en el artículo 20 de este decreto foral. La intervención de las cuentas justificativas de los pagos a justificar y anticipos de caja fija se realizará de acuerdo con el artículo 27 de este decreto foral.

4. La intervención formal de la ordenación del pago es la facultad atribuida al órgano interventor para verificar la correcta expedición de las órdenes de pago.

5. La intervención material del pago es la facultad que compete al órgano interventor para verificar que dicho pago se ha dispuesto por órgano competente y se realiza en favor de la persona o entidad perceptora y por el importe establecido.

II. KAPITULUA. ESKUBIDE ETA SARREREN GAINEAN
EGINKIZUN KONTU-HARTZAILEA BETETZEKO
PROZEDURA

9. artikulua. *Eskubide eta sarreren aurretzako fiskalizazioa.*

1. Toki entitateko, haren organismo autonomoetako eta, hala badagokio, hari atxikitako partzuergoetako diruzaintzako eskubide eta sarreren aurretzako fiskalizazioa egin beharrean, kontabilitatean haren berri hartzeko kontrola eta ondorengo apartatuan aipatutako ondorengo kontrola ezarri ahal izango da, betiere osoko bilkurak hala erabaki badu.

2. Toki entitateko, haren organismo autonomoetako eta, hala badagokio, hari atxikitako partzuergoetako diruzaintzako eskubide eta sarreren ondorengo kontrola kontrol finantzarioaren bidez egingo da.

3. Lehen apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe, toki entitateko diruzaintzako eskubide edo sarreren aurretzako fiskalizazioa egin beharrean kontabilitatean haren berri hartzeko kontrola eta ondorengo kontrola ezartzea ez da zabalduko bidegabeko sarreren itzulketatik eratorritako agintze eta ordaintzea materialeko egintzen fiskalizaziora.

4. Baldin eta, eginkizun kontu-hartzailea betetzean, organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin eta desadostasuna toki entitateen edo haien organismo autonomoen edo, hala badagokio, haiei atxikitako partzuergoen aldeko eskubideen onarpen edo likidaziori edo haien funts edo baloreen mugimenduari buruzkoa edo eskubideen ezetzapenari buruzkoa bada, desadostasuna eragozpen ohar batean formalizatuko da, baina inoiz ere ez du etengo espedientearen izapidea.

III. KAPITULUA. GASTU ETA ORDAINKETEN GAINEAN
EGINKIZUN KONTU-HARTZAILEA BETETZEKO
PROZEDURA

1. SEKZIOA. Xedapen komunak

10. artikulua. *Eginkizun kontu-hartzailea betetzeko momentua eta epea.*

1. Organo kontu-hartzaileak jatorrizko espediente osoa jasoko du, behin egiaztagiri guztiak bilduta eta derrigorrezko txostenak eginda eta organo eskudunak erabakia hartzeko moduan dagoenean.

2. Organo eskudunak hamar egun balioduneko epean fiskalizatuko du espedienteak. Epe hori bost egun balioduneko izango da, espedientearen izapidea presazkotzat hartzen denean edo foru dekretu honetako 13. eta 14. artikuluetan araututako aurretzako fiskalizazio eta kontu-hartzeko araubide berezia aplikatzen denean.

Horretarako, aurretik aipatutako epeak jatorrizko espedienteak jaso eta biharamunean hasiko dira, behin agiri guztiak prest daudenean.

Organo kontu-hartzaileak foru dekretu honetako 6.4 artikuluan aipatutako ahalmena erabiltzen duenean, artikuluko honetan jasotako fiskalizazio epea etenda geldituko da, eta organo kontu-hartzailea behartuta egongo da organo kudeatzaileari zirkunstantzia horren berri ematera.

3. Inoiz ere, toki entitateek egiten dituzten arauen garapenak eta egokitzapenak ezin izango dituzte laburtu artikuluko honetan jarritako epeak.

11. artikulua. *Adostasunezko fiskalizazioa edo kontu-hartzea.*

Organo kontu-hartzaileak jasota utzi beharko du bere adostasuna. Horretarako, eginbide bat sinatuko du, arrazoitu beharrik gabe, eginkizun kontu-hartzailearen alderdiak ziurtatzearen ondorioz fiskalizazioari edo kontu-hartzeari lotutako espedienteak legezketasunarekin bat datorrenean.

CAPÍTULO II. DEL PROCEDIMIENTO PARA EL EJERCICIO DE LA FUNCIÓN INTERVENTORA SOBRE LOS DERECHOS E INGRESOS

Artículo 9. *Fiscalización previa de derechos e ingresos.*

1. La fiscalización previa de los derechos e ingresos de la tesorería de la entidad local, la de sus organismos autónomos y, en su caso, la de los consorcios adscritos, se podrá sustituir, siempre que lo haya acordado el Pleno, por el control inherente a la toma de razón en contabilidad y el control posterior a que se refiere el apartado siguiente.

2. El control posterior de los derechos e ingresos de la tesorería de la entidad local, la de sus organismos autónomos y, en su caso, la de los consorcios adscritos, se efectuará mediante el ejercicio del control financiero.

3. Sin perjuicio de lo establecido en el primer apartado, la sustitución de la fiscalización previa de los derechos e ingresos de la tesorería de la entidad local por el control inherente a la toma de razón en contabilidad y el control posterior no alcanzará a la fiscalización de los actos de ordenación y pago material derivados de devoluciones de ingresos indebidos.

4. En el caso de que en el ejercicio de la función interventora el órgano interventor se manifestase en desacuerdo con el fondo o con la forma de los actos, documentos o expedientes examinados y la disconformidad se refiera al reconocimiento o liquidación de derechos o al movimiento de fondos o valores a favor de las entidades locales, sus organismos autónomos o, en su caso, consorcios adscritos, así como a la anulación de derechos, la oposición se formalizará en nota de reparo que en ningún caso suspenderá la tramitación del expediente.

CAPÍTULO III. DEL PROCEDIMIENTO PARA EL EJERCICIO DE LA FUNCIÓN INTERVENTORA SOBRE GASTOS Y PAGOS

SECCIÓN 1.ª Disposiciones comunes

Artículo 10. *Momento y plazo para el ejercicio de la función interventora.*

1. El órgano interventor recibirá el expediente original completo, una vez reunidos todos los justificantes y emitidos los informes preceptivos, y cuando esté en disposición de que se dicte acuerdo por el órgano competente.

2. El órgano interventor fiscalizará el expediente en el plazo de diez días hábiles. Este plazo se reducirá a cinco días hábiles cuando se haya declarado urgente la tramitación del expediente o se aplique el régimen especial de fiscalización e intervención previa regulada en los artículos 13 y 14 de este decreto foral.

A estos efectos, el cómputo de los plazos citados anteriormente se iniciará el día siguiente a la fecha de recepción del expediente original y una vez se disponga de la totalidad de los documentos.

Cuando el órgano interventor haga uso de la facultad a que se refiere el artículo 6.4 de este decreto foral se suspenderá el plazo de fiscalización previsto en este artículo y quedará obligado a dar cuenta de dicha circunstancia al órgano gestor.

